



# KANTUAN HASTEKO UNEA IRITSI DA

Gaur hasiko da Tolosako 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, polifonia eta folklore sailekin >2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2008-10-29

VIURTEA 1.545.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ruben Hernandez, Ibon Artola, Jesus Aranzegi eta Manu Odriozola. I.T.

**IBON ARTOLA** ENGELS ATENEOKO KIDEA

## «Txunditzeko moduko egunerokotasuna du 'Manifestu komunista'-k»

**TOLOSA** Karl Marx pentsalariaren liburu ezaguna aurkeztuko dute, Erremontari kalean kokatzen den Engels ateneoan, bihar, 19:30ean 6



Leaburun Toka Txapelketa egin zuten. IYUYAURRUTIA

## Giro polita izan dute Alizon eta Belauntzan, Jubilatuen Egunean

**TOLOSALDEA** Igandean hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan zuten bi herrietan 5

**Beldurrezko eta Fantasiaroko Zine Maratoia egingo dute hilaren 22an**

**TOLOSA** Azarorako zine emanaldietarako bihartik aurrera jarriko dituzte bonuak salgai 3

**Sorobarren borda erre zenetik hilabete igaro ondorengo egoera ezagutzuz**

**LEITZA** Bertako jabeak laguntzeko helburuz, ekintza desberdinak antolatuko dituzte 7



Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

Tolosako 40. Abesbatza-Lehiaketa  
Urriaren 29tik azaroaren 2ra

Urtero bezala, bere **Gizarte Ekintzaren** bitartez, kutxak laguntza eman dio aurten ere **Tolosako Abesbatza-Lehiaketari**, beronen 40. Edizioa babestuz, gure herriaren **musika, kultura eta balioak** zabaltzearen.



gizarte ekintza

kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

**Kultura** » Leidor aretoan, 19:30etik aurrera, Estonia, Hegoafrika eta Finlandiako abesbatzen emanaldiak izango dira ikusgai.

#### INIGO TERRADILLOS

Iritsi da eguna. Entsegu eta prestaketa ugariren ostean, gaur hasi eta azaroaren 2ra arte, 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan ariko diren abesbatzek euren hoberena aterako dute, epaimahairen nahiz ikusleen aurrean, sari nagusia lortzea helburu dutelarik.

Guztira 19 abesbatzak hartuko dute parte lehiaketan: ahots nahasietan 8, ahots taldeetan 5, haur abesbatzetan 5 eta bat ahots nahasietan eta ahots taldeetan.

Xabier Sarasola buru dutela, Estatu Batuetako Brady Allred, Israelgo Naomi Faran, Alemaniako George Grun, Sueziaiko Mats Nilsson, Errusiako Victor Smirnov eta Holandako Wilma ten Woldek osaturiko epaimahaiak aztertuko du euren lana.

Koru horiez gain, Frantziako Mikrokosmos taldegonbidatu du Tolosako Ekinbide Etxeak aurten go Abesbatza Lehiaketan parte hartzera. Talde honek kontzertu berezia eskainiko du larunbatean, hilaren lehen, Leidor aretoan, 20:00etan.

#### Irabazlea hurrengo urtean Toursen lehiatuko da

Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia Nazioarteko Abesbatza Lehiaketek antolatzen dute, hau da, Arezzo (Italia), Debrecen (Hungaria), Maribor (Eslovenia), Tours (Frantzia), Varna (Bulgaria) eta Tolosan egiten direnak.

Lehiaketa hauetako irabazleek hurrengo urtean *Lehiaketen Lehiaketa* deiturikoan parte hartzeko txartela eskuratzen dute. Lehiaketa nagusi hau txandaka ospatzen da Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusiko Elkarteko kide diren hirietako batean. Hurrengo urtean, maiatzaren 30ean izango da lehiaketa hau, Toursen. Beraz, Tolosako aurten go Abesbatza Lehiaketa irabazten duenak bertan lehiatzeko aukera izango du.

Pasa den urteko Tolosako Lehiaketan Letoniako Mixed Choir of Latvian Academy of Music abesbatzak irabazi zuen sari nagusia. Halaber, folklore sailean lehen postualortu zuen, eta baita polifonian ere, Japoniako Vox Gaudiosa koruarekin batera.

#### Polifonia eta folkloreakin Lehiaketaren hasiera

Gaur, 19:30etik aurrera, Leidor aretoan hasiko dira abesbatzak kantuan, polifonia eta folklore sailean, hain zuzen ere. Felix Zabala-ren *Ave Maria* polifoniaman, eta epaimahaiko buru den Xabier Sarasolaren *Neskatx Ederra* folklore sailean, izango dira aurten abesbatza guzietik derrigorrez abestu beharko dituztenak.

# Polifonia eta folklore sailekin gaur ekingo dio Abesbatza Lehiaketak



Letoniako Mixed Choir of Latvian Academy of Music koruak irabazi zuen pasa den urteko lehiaketa. A. OTEZABAL

#### » GAURKO PARTE-HARTZAILEAK

##### Academy of Music and Theatre

- **Jatorria.** Tallin (Estonia).
- **Zuzendaria.** Toomas Kapten.
- **Ahots nahasiak.** 17 emakume eta 17 gizon.
- **Historia.** Estonian Academy of Music and Theatreko (EAMT) abeslariak abesbatza zuzendari-tzako eta musika hezkuntzako ikasleak dira. Abesbatza honen errepertorioa munduko abesbatza literaturako lanek osatzen dute bere zentzu zabalean eta, Gregoriano eta polifoniatik hasi eta musikari garaikideen konposizio berrietaraino iristen da. Estoniako abesbatza musika klasikoak eta horren buru diren konpositoreekin lankidetzak paper nagusia jokatu dute abesbatzaren ekintzetan. Azken urtetan abesbatzak Estoniako Orkestra Sinfonikoarekin eta EAMTko Orkestra Sinfonikoarekin abestu ditu Brahmsen *Requiem alemana*, Mahlerren *3. Sinfonia*, Holsten *Planetak* eta Rutter eta Faureren *Requiemak*. 2006an V. Tormisek moldatutako SAAJA errotzko konposizioa eta Finno-Ugriken eztei abestiak, EAMTko Antzerki Eskolarekin lankidetzan produktuzko izan ziren. Abesbatzaren zuzendari artistikoa Toomas Kapten irakaslea da. Azken urteetan interpreteen bilaketa

handia egin dute, eta EAMTko ikasleen bilaketa ere bai. Ahots nahasien abesbatza Tallingo 2001eko Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako irabazlea izan zen.

##### Egitaraua.

- **Polifonia:** *O Magnum Misterium* (Tomas Luis de Victoria); *Ave Maria* (Felix Zabala); *Kliene Karfreitag* *Motette* (R. Tobias); *Salomon Words XXVII* (R. Kangro); *Lindule Laul* (M. Saar); *Tuul Konnumaa Kohal* (Veljo Tormis).
- **Folklorea:** *Neskatx Ederra* (Xabier Sarasola); *Ametsetan* (Javier Bus-to); *Jaani Hobu* (Veljo Tormis); *3 Eesti Mangulaulu* (Veljo Tormis); *Mis Sa Sirised Sirtsukene* (C. Kreek).

##### Singkronies Chamber Choir

- **Jatorria.** Pretoria (Hegoafrika).
- **Zuzendaria.** Johann van der Sandt.
- **Ahots nahasiak.** 17 emakume eta 18 gizon.
- **Historia.** 35 abeslariz osaturiko korua da. Abeslariak aukeratzeko irizpidea ahotsaren kalitatea eta musikaltasuna dira. Beraien lanbideak oso antizak dira eta abesbatzari ematen dioten eskaintza erabat *amateurra* da, baina «gogo handiz» egiten dute, «abesbatza musikarengatik duten maitasunagatik». Euren errepertorioa zabala eta anitza denez, lehenetsun han-

diena Hegoafrikako abesbatza musika interpretatzea da. Taldeak bizitza laburra izan arren, ospe handia eskuratu du, Hegoafrikan nahiz atzerrian, «euren emanaldi kalitateari esker». 1988an FNB SAMA saria jaso zuen ahots nahasientzako grabaketa onenagatik. Nazioartean eginiko biretan, Finlandia, Suedia eta Estonian 1998an eginikoa eta 2004an Txekian eginikoa aipatu behar dira.

##### Egitaraua.

- **Polifonia:** *Deus In Adjuutorium Meum Intende* (Juan Gutierrez de Padilla); *Ave Maria* (Felix Zabala); *An Ode To Music* (Zoltan Kodaly); *Lux Aurumque* (Eric Whitacre); *De Zwolf Bussverse Fur Gemischten Choir* (Alfred Schnittke).
- **Folklorea:** *Neskatx Ederra* (Xabier Sarasola); *Axuri Beltza* (Javier Bus-to); *Lied Van Ko, Die Bloukraanvoel* (Hendrik Hofmeyer); *Voicedance* (Greg Jasperse); *I Am The Voice Of Africa* (Niel na der Watt).

##### Audite Chamber Choir

- **Jatorria.** Helsinki (Finlandia).
- **Zuzendaria.** Jani Siven.
- **Ahots nahasiak.** 18 emakume eta 17 gizon.
- **Historia.** Jani Sivenek eratu zuen abesbatza 1992an, «kalitate artistiko eta ahots kalitate altuko musika sortzeko helburuarekin». Gaur

egun ere, helburu hori bilatzen dute, Helsinkiko Musika Kontserbatorioarekin eta Finlandiako Abesbatza Institutuarekin lankidetzan, barrokotik operaraino eta musika garaikidea ere interpretatuz. Musika Barrokotik euren errepertorioan ardatz nagusi dira Bachen lanak. Klasikoko garaikide eta musika garaikideak Mendelssohnen *Elias* oratorioa, Mozarten *Requiem* eta Beethovenen *9. sinfonia* dira aipagarrienak. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketetan aktiboki hartu du parte: 1999an Irlandako Cork International Choral Festivallean, 2001ean Alemaniako International Chamber Choir Competition Marktoberdorf eta 2002an Tolosako Abesbatza Lehiaketan. Tolosakoan, folklore eta polifonia sailetan bi hirugarren sari lortu zituzten.

##### Egitaraua.

- **Polifonia:** *Salmo* (Ernani Aguiar); *Ave Maria* (Felix Zabala); *Theotoko Pathene* (Alexander Lingas); *O Domine Jesu Christe* (Francisco Guerrero); *Credo* (Einojuhani Rautavaara).
- **Folklorea:** *De Mieliteko* (Jukka Linkola Punapaula and Lintu); *Neskatx Ederra* (Xabier Sarasola); *Suivirsi* (Merzi Rajala); *Zure boza* (Xabier Sarasola); *Pseudo-Yoik* (Jaakko Mantyjärvi).

## Laburrak

### Egoitza berria, Tolosaldeko Mankomunitateak

**GIZARTEA** Tolosaldeko Mankomunitateak egoitzaz aldatu du. Hemendik aurrera Plaza Zaharra, 6an aurkitu ahal izango dira. Harreramanetarako telefono zenbakia 943 67 62 16 da eta webgunea, [www.tolosaldea.org](http://www.tolosaldea.org). Tolosaldeko Mankomunitatea 1998. urte amaieran eratutako erakunde publikoa da. 28 udalerrik osatzen dute, guztira 58.101 herritar inguru bilduz.

### Haurrentzako ibilaldia antolatuta du Alpino Uzturrek

**AISIA** Alpino Uzturre elkarteak, bere 50. urteurrenako ekitaldien barruan, haurrentzako mendi ibilaldia antolatuta du azaroaren 9rako, ingandea. Ibilaldia 09:00etan abiatuko da Tolosako Zerkausitik, Uzturre inguruan izango da, berriro Zerkausira itzultzeko. Lau ordu inguruko ibilbidea kalkulatzeko da eta 8-12 urteko haurrentzat dago pentsatua. Dena den, gurasoak ere joan daitezke beraiekin. Izen-erematea, ikastetxeen bidez edo [Alpinouzturre@hotmail.com](mailto:Alpinouzturre@hotmail.com) helbidetan egin daiteke, azaroaren 6a bitartean.

## Telefonoak Larrialdia. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

### Tolosa.

**Anbulatorioa, larriald:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

### GARRIAOK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldea bus:** 943 650621

**Leitzarain autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIAK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurreremendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

# Azaroko zine emanaldietarako bonuak salgai izango dira bihartik aurrera

**Aisia** » Hilabete honen, estreinakoz, Beldurrezko eta Fantasiako Zine Maratoia egingo da; hilaren 22an izango da.

### ERREDAKZIOA

Bihartik aurrera salgai dira azaroko zine bonuak. Berezitasun bat izango dute oraingoan, Beldurrezko eta Fantasiako Zine Maratoia ospatuko dela.

Gazteria sailak antolatuta, Donostiako Beldurrezko eta Fantasiako Jaialdiaren eskutik, zine maratoia izango da azaroaren 22an, Leidor antzokian. 21:30ean hasiko da eta 03:00etan amaitu. Ekitaldiak hiru zati izango ditu. Lehendabizikoak, sail horietako euskal film laburrak izango dira ikusgai. Bigarrenean, Satoshi Kon zuzendari japoniarraren *Millennium Actress* lana izango da ikusgai. Amaitzeko, 2008an fantasiako Europar film onenatzat jo den, Tomas Alfredsen *Dejame entrar* botako dute.

### Bonuak erosteko aukera

Azaroko bonuak eskuratu nahi dituztenek ostegunetan erosi ditzakete Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean. Baita asteburuan ere.

Bonua erosten dutenek, zine saioetara joateko, lehendabizi Leidorreko lehiatilik igaro beharko dute, etabertansarrera jaso, dohanik. Zine Maratoiaren kasuan, mugatu egingo dute bonudunek sarrera erretiratzeko epea. Hone-



Hil honetan ikusi ahal izango den lehen filma 'El patio de mi cárcel' da. HITZA

### » AZAROKO ZINE EGITARUA

#### Azaroko 2, igandea

■ **'El patio de mi cárcel'**. 19:30 eta 22:00etako saioan izango da ikusgai.

#### Azaroko 3, astelehena

■ **'El patio de mi casa'**. 20:30eko saioan izango da ikusgai.

#### Azaroko 6, osteguna

■ **Aleksandra**. Zine Forumak antolatuta, 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak.

#### Azaroko 9, igandea

■ **'Espiritu del bosque'**. Euskaraz ikusi ahal izango da film hau, 17:00etatik aurrera.  
■ **'Vicky Cristina Barcelona'**. 19:00ean eta 22:00etan izango da ikusgai filma.

#### Azaroko 10, astelehena

■ **'Vicky Cristina Barcelona'**. Ikuslearen egunean, 20:30ean izango da ikusgai.

#### Azaroko 13, osteguna

■ **'La tentacion vive arriba'**. Zine Forumak antolatuta, 19:15ean eta 21:45ean izango da ikusgai.

#### Azaroko 20, osteguna

■ **'Tiro en la cabeza'**. Zine Forumak antolatuta, 19:15ean eta 21:45ean izango da ikusgai film hau.

#### Azaroko 21, ostirala

■ **'Tropic Thunder'**. 22:30ean eskainiko dute film hau.

#### Azaroko 22, larunbata

■ **Fantasiako euskal laburmetraiak**. Zortzi lan izango dira ikusgai. Hasteko, Tinieblas Gonzalezen *Por un infante difunto*. Gero, Asier Altuna eta Telmo Ensalen *Txobx*; Luiso Berdejoren... *Ya no puedo caminar*; Koldo Almandozen *Belarra*; Jose Maria Goenagaren *Tercero B*; Nacho Vigalondoren *7:35 de la mañana*; Koldo Serraren

beste, azaroaren 20a baino lehen hartu beharko da doako sarrera. Aipatzekoa da ere, Zine Maratoiaren egunean, taberna bat jarriko dutela Leidorren, eta ezustekoak izango direla.

Bonuen salneurria ezberdina da, ordutegiaren arabera. Hala, edozein saioetara joan nahi duenak, 10 euro ordaindu beharko du bonua. Hau da, gaueko nahiz arratsaldeko emanaldietara joateko asmoa duenak. Gaueko saioetara bakarrik joan nahi duenak berriz, 8 eta arratsaldekoetara joateko asmoa duenak, 6 euro.

*El tren de la bruja* eta Gabe Ibañezen *Maquina*.

■ **'Millenium Actress'**. Japoniar animaziozko filma izango da ikusgai.

■ **'Dejame entrar'**. Fantasiako zine europarreko filmik onenatzat jo da aurretik.

#### Azaroko 23, igandea

■ **'Golazen'**. 17:00etan eskainiko dute euskarazko film hau. Gainera, doan izango da.

■ **'Happy'**. 19:30ean izango da ikusgai.

■ **'Tropic Thunder'**. 22:00etan botako dute filma.

#### Azaroko 24, astelehena

■ **'Happy'**. Ikuslearen egunean, 20:30ean izango da ikusgai.

#### Azaroko 27, osteguna

■ **'The dead girl'**. Zine Forumak antolatuta, 19:15ean eta 21:45ean izango da ikusgai.

## Gipuzkoako banakako txapelketa hasi da

**Xakea** » Bestalde, azaroaren 2an VII. Urdiña Txiki saria jokatu da izen bereko erkarteian; xake azkar erara izango da.

### ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan xakeko Gipuzkoako banakako txapelketa hasi ziren. Aurtengoan Tolosako Xake Elkarteak hirugarren mailakoa antolatuta du, duelabiurte bezala. Larunbatean jokatu zen lehen txanda eta ezusteko ugari ikusi ahal izan ziren. Adibidez, Jokin Mendia tolosar gazteak zerrendabarru den David Parron billabonatarra mendean hartu zuen. Aipatzekoa baita ere Eneko Maiz gazteak

teak Eustaquio Corredaren aurka jokatuako partida. Oso partida borrokatua izan zen eta azken uneko akatsbati esker bakarrik irabazi izan zuen Eustaquiok. Hauex izan zen txandako partidarik luzeena, ia hiru ordukoa.

Bestalde, datorren igandegoizean, azaroko 2, VII Urdiña Txiki Saria jokatu da Tolosako Urdiña Txiki erkarteian. Xake azkar erara jokatu da, bost minuturekin jokalariek eta partidako bakoitzeko. Goizeko 9 eta erdian hasiko da eta goiz osoan zehar jokatu da. Antolatzaileek txapelketa honetan parte har dezaten dei egiten die Tolosa eta inguruko xake zaletu guztiei. Jokatu nahi duenak aski izango du igandean Urdiña Txiki elkartera hurbiltzarekin.

## Lautik lau irabazi ditu Usabak MT-Tolosak

**Mahai tenisa** » Krafft Atletiko taldeko jokalariek izan zituzten aurkari; jardunaldiaren ostean, bosgarren postuan dira.

### ERREDAKZIOA

Bigarren garaipena lortu da asteburu honetan Usabal MT-Tolosak taldeak. Krafft Atletikokak izan zituzten aurkari, bigarren mailan. Donostiako Aiete auzoko kiroldegian izan zen norgehiagoka. Tolosako taldea Iker Mugerza, Emilio Anton eta Erik Diezek osatzen zuten, eta garaipenaren ostean, sailkapeneko 5. postuan geratzen dira. Mugerzak jokatu zuen lehen partida Aitor Odriozolaren aurka.

Gorabehera handien ostean, eskualdeko anton izan zen garaile. Emiliano Anton izan zen bigarrena jokatzen. Honek Igor Arizmendi, aurkari gogorra zuen aurrez aurre. Baina, eguneko bigarren puntua ere tolosarrentzat izan zen, lautatik, hirutan, Anton izan baitzen nagusi.

Banakakoetan, eguneko azken partida Erik Diezek jokatu zuen. Lau saioak egin ostean, berdinkeztarekin aurkari, bigarren mailaren jokaldian Diez gailendu zen. Hala, markagailuan diferentzia handiagotu zen. Binakakoan ere Tolosakoak izan ziren garaile. Honenbestez, lau eta huteko emaitzarekin amaitu zen jardunaldia, tolosarren nagusitasun garbiarekin.

## Haur antzerkiak eman dio jarraipena kultur jardunaldiei

**Asteasu** » Gorringo taldearen emanaldia izan zuten atzokoan; bihar, 20:00etan, 'Eutsi!' filma ikusteko aukera.

### ERREDAKZIOA

Asteasuko kultur jardunaldien baitan atzo haur antzerkiaren txanda izan zen. Gorringo taldeak eman zuen *1.728 animali kontu* antzerkia eta haur zein guraso ugari elkartzu ziren udaletxeko zinema aretoan. Animaliak aitzakia hartu-

ta umorez zipriztindu zuten atzo arratsaldea Gorringo taldekoek.

Kultur jardunaldiak orain arte emandakoari begiratu gero, entzule dezente joan ziren Imanol Ubedak eta Karlos Aranzegik emandako kontzertura. Bestalde, Larunbateko argazki rallyan 12 lagunek parte hartu zuten. Aurrerago jakingo da nortzuk izan diren irabazleak.

### Zinema euskaraz

Hurrengo ekitaldia bihar bertan izango da. 20:00etan *Eutsi!* filma ikusi ahaliko da udaletxeko zinema

aretoan. Euskaraz egindako filma da eta bertako protagonistetako bat da Asteasun bizi den Anjel Aikain aktorea.

Azkeneko ekitaldia azaroaren 5ean izango da, asteazkena. Irteera kulturala antolatu dute, Ekainberri bisita eginaz. Irteera ordua 15:30ean izango da. Dagoeneko izena eman du zenbait herritarrek. Argibideak jasotzeko eta izena emateko Kultur Etxera jo daiteke edo 943 69 68 96 zenbakira deitu.

Bestalde, gogoratu bihar amaitzen dela 2009ko egutegiako argazkiak entregatzeko epea.

## Lidon Sorianoren hitzaldia jardunaldietan

### ERREDAKZIOA

Jatorrin elkarrekin antolatu duen *Palestina bake kultura bateruntz?* jardunaldien baitan gaur, 19:00etan, Lidon Sorianok *Palestina, garbiketa etnikoko 60 urte* hitzaldia eskainiko du Ibarra Kultur Etxean.

Jardunaldi hauek antolatzen dituzten Jatorrinek Mundubat eta Ibarra Udalaren laguntza izan du. Gogoratu ere, Yon Cazenaveren ar-

gazki erakusketa ikusgai dagoela Kultur Etxeko erakusketa gelan. Erakusketan Cazenaveren Palestinako argazkiak ikusi ahal izango dira eta honekin batera, gainera, Hirugarren Mundua eta Bakea izeneko Gorbemuz Kanpoko Erakundearen irudi desberdinak ere jarriko dituzte. Erakusketara gerturatu denak ere Palestinarekin zerikusia duen materiala erosi ahal izango du.

## Udalbatzan, ordenantza fiskal berria aztergai

### ERREDAKZIOA

Villabonako Udalbatzak ezohiko osoko bilkura egingo du gaur, udaletxeko batzar aretoan, 20:00etan. Hainbat gai jorratuko dituzte bileran, besteak beste, zergak, tasaketa prezio publikoak arautzen dituzten ordenantza fiskalak 2009. ekitaldi ekonomikorako aldatzea.

Beste gai batzuk izango dira Maixabel Arrietari dedikazio eskusiboz alkate kargua betetzeara 2008 ekitaldiari dagokion soldata aldatzeko proposamena. Mintzola Fundazioaren estatutuak onartzeko proposamena ere jorratuko dute. Santiago egoitzan eraikinare eta altzarien garbiketa-mantenua, zuzeneko asisten-

tzia (laguntza kliniko, erizaintza...), ikuzketa, harrera eta sukaldaritza zerbitzua esleitzeko proposamena izango da aztertuko duten beste gaia.

Horietaz gain, 2008ko aurrekontuarengan eragina duen kredituen transferentzia bidezko kreditu aldaketako 10/2008 zenbakidun espedientearen onartzeko proposamena ere jorratuko dute. Bestalde, Foru Aldundiak ondatik 2008 ekitaldiari dagokion soldata aldatzeko proposamena. Mintzola Fundazioaren estatutuak onartzeko proposamena ere jorratuko dute. Santiago egoitzan eraikinare eta altzarien garbiketa-mantenua, zuzeneko proposamena onartzeko proposamena bozkatu dute.



Gorringo taldeak haurrentzako antzerki emanaldia egin zuen atzo udaletxeko zinema aretoan. J. GARCIA

## Eneko Galarraga preso Ocaña II espetxera lekualdatu dute

### ERREDAKZIOA

Eneko Galarraga euskal preso billabonatarra espetxeratu dute. Frantziako polizia Espainiakoen esku uzterakoan, Madrilan dagoen Soto del Real espetxera eraman zuten. Orain Toledon dagoen Ocaña II espetxera eraman dute eta lehenengo gradua aplikatu diote.

Ocaña II espetxean behin behinako moduluan dute Galarraga. Aurrerago beste modulu batera lekuz aldatuko dute. Dirudenez, espetxe horretan izango da epaiketa egin arte.

Galarraga martxoan utzi zuen Espainiaren esku Frantziako polizia, euroagindua tarteko. Doni-

bane Lohizunen atxilotu zuten, polizia-etxe batean, ohi bezala, sinatzeraz joan zen momentuan. Orain preso billabonatarra espetxealdi prebentiboan dago, hau da, epaiketa noiz egingo den zain. Egoera horretan, legearen arabera, lau urte egon daitezke espetxeratu.

## Laburrak

### Kultur ikastaroetan izena emateko aukera etzi arte

**VILLABONA** • Villabonako Udalak Sacemen kultur ikastaroak antolatu ditu. Hiru daude aukeran: egur lanketa, pintura eta zaharberitze eta arte aplikatuak. Ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik, epea etzi amaitzen baita. Horretarako 943 69 16 55 edo 943 69 21 00 zenbakietara deitu behar da izena emateko.

### 'Eskolara oinez noa' hitzaldia Samaniego

**TOLOSA** • Samaniego Eskolako Ingurumen Batzordeak hitzaldia antolatu du biharko. *Eskolara oinez noa* izenburu du solasaldiak eta hizlaria Isabel Prieto Donostiako Udaleko teknikaria izango da. Hitzaldiari 17:30ean emango zaio hasiera eta Samaniego Ikastetxeko Haur Hezkuntzako eraikinean izango da.

**txokoa h**

**2 sarrera pare**  
zozketatuko ditugu!

deitu eta eskuratu

**Eskubaloi partida**

**AKABA BERA BERA**  
B.M Ro' Casa

LARUNBATA

**AZAROAK 1 · 19:00**

Donostiako Bidebieta Kiroldegian

**berabera**  
EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA



# Jubilatuek «elkartzeko eta kontutuan aritzeko aukera» izan dute

**Gizartea** » Altzon eta Belauntzan Jubilatuen Eguna ospatu zuten igandean, «giro onean eta errepikatuzeko moduan».

## NEREA URBIZU

Iragan den igandea Altzon eta Belauntzan Jubilatuen edo Erretiratuen Eguna antolatu zuten Udalek. Erantzuna bietan «bikaina» izan da, parte hartu zutenek «ondo» igaro zuten eguna. Udalek dioten moduan, «azken batean, elkartzeko eta kontutuan aritzeko aitzakia da egun hau».

Altzon Jubilatuen Eguna ospatu zuten eta bertan, eguna asterako meza nagusia izan zuten eta ondoren Beasaingo Asmube Abesbatzaren saioa ikusteko aukera izan zuten. Kalera irtendakoan herriko Artea dantza taldearen dantzaldia izan zen eta «herritarrak eta kanpotarrak ere baziren hauen saioari begira». Herriko trikitalariak eta pandero-jotzaileak aritu ziren ere.

Gero, Mendizabal eta Solozabal bertsoari bertsotuta saioa ere izan zuten. Amaitzeko Arandia Jate-txean bazkaldu eta bertsoariekin eta herriko trikitalariekin «dantza saio ederrak izan ziren». 25. jubilatutako elkartu ziren bazkarirako, eta «giro politean egon ziren».

Datorren urteari begira «bertsolarien saioan mikrofonoak izatea nahi genuke». Datorren urtean bertsoari antolatuko dute, «jubilatutako biltzeko era bat baita eta haiek biltzeko aitzakia».



Altzon plazan herriko Artea dantza taldeak saioa eskaini zuen. Jende ugari gerturatu zen bertara. HITZA



Toka Txapelketa emakumeentzat eta gizonentzat izan zen. Irudian, emakume bat toka jaurtitzeko prest. IYUYA URRUTIA

## Belauntzan ere, «ondo»

Belauntzan ere urtero antolatzen dute Erretiratuen Eguna eta aurten «oso ondo eta eguraldi ederrarekin» izan da, Mariano Lazkano alkateak gogoan duen bezala. «Oso alai zeuden denak, eta halako eguna jaiero egin beharko litzatekeela ziorten bertaratu zirenek». Guztira 27 lagun bildu ziren.

Leaburun aritzen diren dantzariak aritu ziren herriko jubilatuei saioa eskaintzen, «txistulari eta guztzi». Toka txapelketa egin zuten ere, eta irabazleak aurtien Edurne eta Benancio izan dira. Sari bantetan garaikur bat jaso zuten bi txapelkunek eta ondoren, zozketa egin zuten. Ximoni eta Estanix izan ziren zortea izan zutenak. Horrez gain, opari bana jaso zuten bazkaltzarrek: «Manikura egiteko estutxe bat eman diegu denei».

## Tarteka txisteak ere bai

Ostatuan Eusebio Etxeberria soinu-jotzaileak alaitu zuen bazkalostea, eta Zeberio eta Larrañaga bertsoariekin jarraitu zuten haren bidea, «taratean txisteak kontatu. Barre batzuk egin genituen hauekin; giro polita sortu zuten». Soinu-jotzailearekin batera Inaxio Etxeberri txistu pandero-jolea aritu zen: «Honek ere umore oso onarekin jotzen zuen. Gainera, jubilatuek ezagutzen zituzten kantu zaharrak ere jo zituzten eta oso gustura egon ziren bertaratu zirenek», musika jarraituz.

«Festaezin bukatu, 20:00ak arte luzatu zen bazkaria, handik alde egin ezinik». Gainera, «lehenago itereak ere egiten zituzten, baina urteak aurrera joan ahala gero eta gutxiago animatzen dira, eta elkarrekin egoteko herrian bertan egiten diren halako jaiek aprobetxatzen dituzte». Kontuak esaten «gustura» aritu ziren jubilatuek.

## Laburrak

### Ezker abertzaleak deituta, herri batzarra bihar

**AMEZKETA** » Bihar, osteguna, Amezetako balioanitzeko gelan ezker abertzaleak deitutako herri batzarra izango da. 20:30ean bilduko dira eta bertan datozen hauteskundeak, hemendik aurrera izan beharreko jarrera, egoera eta jarraitu beharreko ildo berria izango dituzte gaitzat. Bilerak irekia da eta herritarrak bertan azaltzea eskertuko lukete antolatzaileek, egun bizi den eta biziko den egoeraz jabetzeko.

### 2009. urteko aurrekontuez astelenean ariko dira

**AMEZKETA** » Datorren astelenean (azaroak 3) Amezetako balioanitzeko gelan Kontuen batzorde berezia izango da. Iluntzean egingo dute, 20:30ean, hain zuzen ere. Bertan 2009. urterako aurrekontuak jorratu eta landuko dituzte.

**PURRtx, PORROTx eta MARIHOTATS**

**PANPINAK**

**DVD berria etxeko txikiak jolasteko**

DVDa (posterra opari) **18€**

Panpina bakoitza (txapa opari) **20€**

Egin eskaria amaitu baino lehen **902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info** adierazi harpidedun kodea

**hitza**

**Basatia**

ARTURAREN GIDALIBURU MAGAZIA

Eskura ezazu berrieekin

**Azaroak 1**

**Basatia**

bertaratu 3,99€

bertaria

**berria**

E **Elkarrizketa****IBON ARTOLA** » Engels ateneoko kidea

# «Egunerokotasun ikaragarria du 'Manifestu komunista'-k»



Ruben Hernandez, Ibon Artola, Jesus Aranzegi eta Manu Odriozola, Engels ateneoan. L. TERRADILLOS

**Gizartea** » Engels ateneoan 'Manifestu komunista' liburu klasikoaren aurkezpena egingo dute bihar, 19:30etik aurrera.

**L. TERRADILLOS/N.LATABURU**

Tolosako Errementari kaleko zortzigarren zenbakian kokatzen da duela hilabete batzuk ateak ireki zituen Engels ateneoa. «Gure helburua marxismoaren ideiak zabaltea eta langile klasearen borroka bultzatzea da», azaltzen du Ibon Artolak (Añoeta, 1980), Alemaniako pentsalaria eta buruzagi sozialistaren izena hartu duen ateneoaren nondik norakoak azaltzerakoan. **'Manifestu komunista' liburu ezaguna aurkeztuko duzue bihar. Zer ekarpen egin daiteke egungo gizarterako?**

Orain dela 150 urte baino gehiago idatzitako liburua izanagatik txunditzeko moduko egunerokotasuna du. Kapitalismoaren garapena aztertzen du, merkatu askeak eta

kompetentziak kapitalaren kontzentrazioa ekarriko zuela aurreikusiz. Krisi kapitalistak, gehiegizko ekoizpenaren ondorioz, kapitalismoa bukatzen ez den bitartean ez direla desagertuko, eta gero eta gogorragoak izango direla azaltzen du. Baita beharrezkoa dela kapitalismoarekin amaitzea, langileen iraultzaren bitartez, mundu honetako arazoekin amaitzeko. Aurreikuspen hauek ez dira kasualitate bat, marxismoaren metodo zientifikoan oinarritzei esker egin zituzten.

**Krisia dabil bolo-bolo komunikabideetan. Nondik dator zuen us-tez?**

Zaila da hitz gutxitan azaltzea. Kapitalismoa sistema anarkikoa da, ez du beharren arabera ekoizten

eta banatzen. Gutxi batzuren interes ekonomikoaren arabera funtzionatzen du. Kapitalismoan, langileek ezin dute kontsumitu ekoizten duten guztia, enpresariak ez baitiete ordaintzen egiten duten lanaren zati osoa. Hor dago kokka. Hazkuntza ekonomikoaren ondoren, enpresen almenak ezin husturik geratzen hasten dira produktua ez baitira saltzen. Ziklo hau ekidin ezina da. Enpresariak langileak kalera botatzen dituzte orduan, langabeteak oraindik eta produktu gutxiago erosiko dituzte... Honek domino efektua dakar gizarte osora. Kredituei esker hazkuntza ekonomikoaren urteak luzatu dira baina kredituek krisi gogorrago probokatu dute. Herritarrek ezin dituzte kredituak ordaindu, hortik krisi finantzarioa. Krisi kapitalisten paradoja, munda elikagaiez, etxez... beteta dagoenean gosea eta etxebizitza arazo sekulakoak dira. Multinazionalak erre edo itsasora botatzen

dituzte elikagaiek eta milioika etxe hutsik daude.

**Eta zein litzateke irtenbidea?**

Ekonomia planifikatu bat. Beharren arabera ekoiztuko eta banatuko duena. Argentina eta Brasilgo haragi ekoizpenarekin soilik posible izango litzateke gosearekin amaitzea denbora gutxian. Gauza bera lor liteke beste maila guztietan. Baina ekonomia planifikatua eraikitzeko derrigorrezko pauso bat eman behar da, kapitalistak espropiatzea. Eta ekonomia planifikatua ondo funtzionatzeko beharrezkoa izango litzateke herritar guztien partehartzea eta kontrola gizarte osoko erabakietan eta kudeaketan. Botereak gutxi batzuren eskuetan jarraitzen duen bitartean mundu honetako arazoak ez dira konponduko. Ekonomia planifikatu demokratikoari esker eraikiko litzateke benetako gizarte sozialista bat, sozialismoa.

**Nola aplikatuko zenituzkete zuen ildoak egungo gizartera?**

Langileek eta zapalduta dauden herritarrek soilik eraman ditzakete helburu hauek aurrera. Inork ezin du ordezkatu masen borroka. Ideia hau oso garrantzitsua dela uste dugu. Horregatik eraman nahi ditugu marxismoaren ideia iraultzaileak langile eta herritar hauegan. Helburua marxismoaren ideiak zabaltzea eta langile klasearen borroka bultzatzea da.

**Zer topatuko du Engels ateneora hurbiltzen denak?**

Ateneora etortzen denak liburu marxistak aurkituko ditu bati bat. Baina baditugu bestelako liburu historiko, politiko eta filosofikoak ere. Gainera, gero eta liburu gehiago osatuta dagoen liburategian liburuak irakurtzeko eta hauek etxera eramateko aukera izango dute. Asteleheneetik ostiralera daukagu irekita, 17:00etatik 20:00etara.

**Badira dagoeneko hilabete batzuk inauguratu zela ateneoa. Zer balorazio egiten duzue orain arte?**

Ba uste baino harrera hobea aurkitu dugu. Ez da kasualitate bat. Mundu osoan zehar ikaragarri hazten ari dira liburu marxisten eta batez ere *Manifestu komunista* beraren salmentak. Jendea galdera asko egiten ari da buruari, irtenbideak bilatu nahian dabil eta ez da harritzekoa askok marxismoaren ideiei arreta jartzea eta kuriositate sentitzea.

**Zeren bila doa oro har bertara gerturaten dena?**

Ba egia esan, liburu ezberdinen bila etorri da jendea. Ez da egon liburu konkretu bat besteen gaine-

**Kredituei esker hazkuntza ekonomikoaren urteak luzatu dira, baina krisi gogorrago probokatu dute**

tik. Jende askok esan digu harriztuta dagoela horrelako liburuak ikusita eta beharrezkoa dela berriro irakurtzea gaur egungo gauzak ulertzeko eta aldatzeko. Beste jende bat ere sartu da zer den galdetzera, ikusten zituen liburuak harriztuta. Esan behar dugu eta eskertu gainera, batzuk ez direla etorri liburuak hartzera bakarrik, etxean zituzten liburuak eman eta utzi dizkigute liburategian jartzeko.

**Zergatik Engels ateneoa? Nola sortu zen?**

Federiko Engels fundazioari esker ditugunez liburu gehienak, hortik atera genuen Engels. Eta ateneoarena kide batek proposatu zuen, iraganean gehiago izan ziren eztabaida eta hitzaldien lokal haien omenez. Aurretik esan dugun bezala, ideia marxisten alde pauso bat ematea izan da gure helburua, eta pauso hau garrantzitsua izan delakoan gaude. Hasiera baino ez da eta gogotsu gaude aurrera egiteko.

**Aurrera begira, ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa duzue ateneoan?**

Oraingoz behintzat, hilabetearen behin liburu aurkezpen bat egitea da gure asmoa. Etorkizunak erakutsiko digu nolako gauz gehiago egin ditzakegun. Gonbidapena luzatzen diegu batipat langile eta gazteei liburu aurkezpen hauetara etortzeko eta marxismoaren aldeko ideiak zabaltzen laguntzeko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Leitzelarreko Sorobarrengo borda alboan duela, Mario bertan utzi behar izan duen txakurrekin. ASIER IMAZ

Gertatua gertutik ezagutzea inoiz ez da kaltegarria izaten. Leitzelarreko Sorobarrengo borda urriaren 3tik 4ra erre zen. Mariok eta Mariak dena galdu zuten bertan, baina pattalaldiak pattalaldi aukerak han darrai.

## Laguntza eskaria bizirik

ASIER IMAZ

**G**arai txarrak laguntza eske ibiltzeko; gure gizarte kapitalista honetan eskera-ko garai onagongo balira bezala.

### «Leitzelarreko borda erre da»

Leitzako kale eta komunikabideetan, urriaren 4ean, laguntza eskera zabaldu zuten hainbat herritarrek: «Sorobarrengo borda erre da gauean; ezer gabe geratu dira». Gaur egun ere ezer asko gabe jarraitzen dutenez, laguntza deialdia ez da iraganeko albiste bat, eta lagundu nahi dutenek Nafarroako Kutxara edota Euskadiko Kutxara joatea besterik ez daukate.

### Mendian ere ezin bakean bizi

Mario Leitzelarreko Sorobarrengo bordan bizi zen neskalagunarekin. Urriaren 3an arratsaldea etxean igaro zuen lanean; ezta bildu, hazienda gobernatu eta etxeko lanak eginaz. Iluntzean, Leitzatik Goizuetara doan errepidera jaitsi zen, Mariaren bila. Biak elkartu eta bordara zihoazela, kea ikusi zuten lehenik, ondoren sua. Sorobarrengo bordaren inguruan ez dago etxebizitzarik, bikotea bakardadean bake-bakean bizi baitzen; «sistemak bakean utzi gaitzala esaten nuen, baina mendian urruti ere ez gaitu bakean uzten» dio Mariok.

Sua dirudien tximinian hasi zen, hori dio Mariok: «borda bizitan dago banatua. Beste aldean lagun batena da baina oraindik ez da bertan bizi. Sua ikusi genuenean teilatura joan ginen, sua beste aldean zabaldu ez zedin. Hori behintzat lortu genuen. Gure aldean teilatua erori zen aurrea eta honek berarekin bota zuen bigarren pisuko lurra. Ur depositua segituan hustu genuen eta gero erreka txiki horretatik ahal genuen bezala aritu ginen sua itzali nahian, kazuela batzuekin».

Borda barnera sartzean, ezti poteak ikus daitezke, Marioren lanbidearen azken izerdia. Barneko eztaia erabat erretako masa bat da. «Hemen dago geneukan ezti guztia. Horrenbeste esperantza jarri genituen etxe honetan, bizimodu honetan, ... orain pattalaldian aurkitzen gara. Erre zen gauaz gogoratzen naiz; sua itzali eta oraindik ez ginen gertatuaz jabetzen. Lagun baten bordara joan ginen lotara. Hurrengo egunean kolpe izugarria hartu genuen. Orain berriz dena berria da: bankuari ordaintzen jarraitu behar, bizi garen pisuko alokairua, bikotean gauza berriak...».

Mario bere etxea zenarengainean dabil hara eta hona. Hala eta guztiz ere, argi du udaberriarekin batera, eraikitze lanak hasteko indarra eta kemena iritsiko direla.

### Berlindik Leitzara

Berlinen jaio zen Mario. Txikitatik naturaren inguruan bizi izan da, hiritik aparte. Langabezia zego-

nez, Donostiara etorri zen ikastaro bati esker lanera. Arotz lanetan aritu ondoren, Euskal Herrian gertatzea erabaki zuen. Donostiatik Goizuetara eta hemendik Ezkurra joan zen ondoren bizitzera. Mendia barnean zeramanez, borda batekin amets egiten zuen. Azkenik ametsa errealitate bilakatu zitzaion eta Mariarekin batera Sorobarrengo bizilekua erosi zuten, paraje izugarrian.

Izertiaz sortutako zeru xumean bizi zirela, infernuko sua ezagutu zuten. Orain erratsuetatik berriz sortu nahian dabilza.

### Behar duenari eman beharra

Ez da negar egiteko istorio bat Mario eta Mariarena; ezta ere komunikabideetan behin eta berriz zabalduko duten gertakari hunkigarri horietako bat. Baina laguntza eskatzen duenak zerbaitegatik eskatzen du. Okerragoak gertatzen dira, bai, baina behar duenari eman beharra dago, bere mailan eta aitzakiarik gabe.



Suteak barneko dena erre zuen. Teilatua eta bigarren pisuko lurra barne. A.I.



## Poxpolo eta Mokolo haurrekin

**LEABURU** • Uli Mankomunitateak eta Leaburu-Txaramako Udalak, Kutxak sustatuta, Poxpolo eta Mokolo pailazoan emanaldia antolatu zuten iragan larunbatean. Leaburuko pilotalekuan ospatu zen ekimena eta bertan 65 bat lagun bildu ziren. Pailazoan ondoren, Udaletxean meriendatxo bat burutu zuten bertara agertu zirenek. IMANOL GARCIA

## Etxerategen azken ostiralaz gain ekimen berriak aurkeztu ditu

ASIER IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Etxerategen elkarretaratzeak deitu ditu ohiko herri eta orduetan azken ostiralaren harira. Euskal Errepublikoaren Senitarteak elkarretaratzeak, Elorrioren burututako batzarraren berri emateaz gain, «sakabanaketa politikak urrian beste istripu bat eragin duela» jakinarazi du.

### «Sakabanaketa krudela»

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Etxerategen jakinarazi duenez, «urrian auto istripua eduki zuten Ane Lizarralde preso politikoaren senideek, Jaengo espetxera zihoazela. Kotxeak kalte material handiak eduki arren, zorionez senideek ez zuten kalte fisikorik izan». Etxerategen gogor salatu nahi izan du euren senideei ezartzen zaien «sakabanaketa politika krudela».

### Bi deialdi berri

Etxerategen sindikatuen ordezkariekin batzar zabala egin zuen Elorrioren (Bizkaia) iragan astean. Azken ostiraleko elkarretaratzeetan, bertan egindako irakurketa zabalduko du Etxerategen ekimen berrietan parte hartzeko deia egitearekin batera.

Lehenik eta behin, etzi 12:00etan, ospital nagusien aurrean elkarretaratzeak egingo dituz-

tela jakinarazi dute, *Gure senide gaixo larriak etxean nahi ditugulako!* lelopean. Iruñeko eta Donostiako ospitaleetan bilduko dira, besteak beste.

Elorrioren sindikatu ezberdinetako ordezkariak azaldu bezala, «gaitzotasun larri eta sendaezinak dituzten 14 senideei buruz» hitz egingo dute azken ostiralean. Baita «zigor osoa, 3/4ak edo 2/3ak beteak izan arren espetxean jarraitzen duten senideen inguruan» ere.

Bigarren deialdia azaroaren 14rako luzatu dute: «12:00etan bizi arteko espetxe zigorra salatze-ko, epaitegi nagusien aurrean» bilduko dira.

### » ELKARRETARATZEAK

#### Bihar, urriak 30

■ **Leaburu-Txarama.** 20:00etan.

#### Etzi, urriak 31

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketza.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

**@ Eztabaidak.** Sartu gure web orriko atal honetan eta eman zure iritzia bertan agertzen diren gaien inguruan. Adibidez, Voith Gorostidiko etxebizitzaren inguruko zurrumurruek inguruko galdera aurki dezakezu bertan. Eman zure iritzia:

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zerbitzaria.** Asteburuetarako zerbitzaria behar dugu. Deitu: 605 72 77 30.





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldiak

■ **Ibarra.** Lidon Sorianok *Palestina, garbiketa etnikoko 60 urte* hitzaldia eskainiko du Benito Izagirre kultur etxean 19:00etan, Palestinari buruzko kulturarteko jardunaldietan.  
■ **Tolosa.** Aitzor Doiarzabal eskalatazailerak *Via directa Americana (Petit Dru)* proiektzioa eskainiko du Oargi mendi elkartearen, 19:30ean Mendi Astearen barruan.

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa antolatuta dute. Lanak Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan aurkeztu behar dira, azaroaren 26a baino lehen.  
■ **Tolosa.** Osasun eta Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten herriko talde eta elkarteentzako diru laguntza deialdia. Informazioa, udal etxean eta [www.tolosa-koudala.net](http://www.tolosa-koudala.net).  
■ **Tolosa.** Ibarra Alur dantza taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du azaroaren 16an Tolosako Leidorantzokian 19:30ean. Sarrerak salgai Servikutxan. 1968n jaiotakoen bazkari herrikoia  
■ **Tolosa.** Usabal sagardotegian azaroaren 1ean. 35 euro ingresatu behar dira 21010067210106368467 kontu korrontean. Informazioa 685 755103 telefono zenbakian.  
■ **Tolosa.** 1958an jaiotakoek afari herrikoia egingo dute Fronton jate txean azaroaren 15ean. Izen-ematea, 619 42007 telefonoan (50 euro).

■ **Tolosa.** Mendiko bigarren esku materialaren merkatu txikia Oargi mendi elkartearen, azaroaren 1etik 9ra, 18:00etatik 21:00etara. Material salgai jarri nahi duenak, Oargin aurkeztu edo 688 698642 telefono zenbakira deitu.

■ **Tolosa.** Oargi Mendi Elkarteak Mendia eta Natura gaiarekin argazki lehiaketa antolatuta du. Argazkiak Karlis argazki dendan aurkeztu behar dira. Oinarriak eta sariak: [www.oargi.org](http://www.oargi.org).

■ **Villabona.** Fleming inguruan eraikitzen ari diren etxebizitza tasatuetarako izena eman daiteke udal etxean, hilaren 31ra arte.

■ **Villabona.** Teodoro Hernandez VII. Ipuin Lehiaketarako lanak udal bulegoetan entrega daitezke. 6 urtetik gora. Gaia librea. Aiztondo, Anoetaldea eta Andoingo jendearentzat.

### Erakusketa

■ **Alegia.** Encarna Megia alegiarraren margolanak ikusgai urri

osoan zehar, asteartetik igandera bitarte, jubilatuen tabernan. Paisaiak lantzen ditu gehienbat: salgai ere daude.

■ **Alegia.** Herria kantuan emanaldiaren proiektzioa izango da Kultur Etxean 18:00etatik 20:00etara.

■ **Ibarra.** Jon Cazenave argazkilaria erakusketa Palestinari buruz eta Pazy Tercer Mundo GKEK emandako argazkiak Benito Izagirre kultur etxean.

■ **Tolosa.** Vanessa Alzateren pintura, eskultura, grabatu eta collageak ikusgai Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** Isabel Mujikaren olio-lanak eta akuarelak ikusgai Errota tabernan, paisajeak eta bodegoiak batez ere.

■ **Tolosa.** Marce Tena ibartarrak gai eta teknika desberdinetako hamabi koadro ditu ikusgai Lanbroa tabernan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zaballarreta, 1.943 943673649.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

## A Agurrak



### Urte askoan

**Iñigo Guridi Lasa (Villabona).** Euskal preso politikoa. Borrokatzen duen herriak soilik lor ditzake helburu handiak... aurrera goaz. Maite zaituztegu. Muxuak.

**Kaixo Inigo! Zer moduz zaude?  
Gu hemen, beti bezala, zure urtebetetze  
egunaz gaur gogoratzen gerala! Muxu asko  
ta besarkada bat  
jaso itzazu berehala,  
ZORIONAK eta  
laister arte:**

Zure famili  
leiala!!

